

SEVE CALLEJA

# KONTXAKO HAUR GALDUAK



erein

# KONTXAKO HAUR GALDUAK

SEVE CALLEJA

Perzebal, 33

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko,  
nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.  
Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra  
(Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Azaleko irudia:  
Juanedc

Azalaren diseinua:  
Asier Beltza

Itzulpena:  
Iñaki Zubeldia

Maketazioa:  
Erein

© Seve Calleja

© EREIN. Donostia 2016

ISBN: 978-84-9109-164-6

L. G.: SS-1173/2016

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

# KONTXAKO HAUR GALDUAK

SEVE CALLEJA

Itzultzailea: Iñaki Zubeldia



# 1

## Piraten lehorreratzea

“Haur bat galdu da hondartzan. Haren ardura duena, etor dadila Kabina Zentraletara lehenbailehen jasotzera”. Horixe zen uneoro bozgorailuetatik entzuten zen mezua.

Abuztuaren erdialdeko arratsalde bero bat zen. Abuztuaren 15eko arratsaldea, zehatzago esanda. Eta erraza da irudikatzen nola zegoen hondartza, hiriko jaiegun nagusia izanik.

Bainu-hartzaileak hondarretan eta begiluzeak Mirakontxa pasealekuko barandilletan pilatuta zeuden, kai zaharretik baltsa kaxkarretan abiatutako milaka piratek badiako urak noiz harrapatuko zain, gero hondartzan lehorreratzeko.

Arratsaldeko 5etan, Piraten Abordatzea zen ekitaldi izarra Aste Nagusiko jaien egitarauan. Horregatik, eta Kontxako hondartza betetzen zuen jendetzagatik, bozgorailuetatik etengabe ematen zituzten mezuak. Ordubete eskasean bost ume ziren jada bildutakoak. Eta batzuk, ez hain umeak.

Haietan handienak hamabi urte zeuzkan eta Urko zuen izena. Malen eta Ainhoa, elkarrekiko

ezezagunak, urtebete gazteagoak ziren eta mutila bezain lasai zeuden. Hirurak galdu egin ziren jendetza-  
ren artean. Baina inork ez zituen eraman kabinetara,  
bakarrik joan ziren hara. Hura baitzen familiakoekin  
adostu zuten tokia galtzen baldin baziren. Urkok, gai-  
nera, bere *iPhonea* zeraman. Urduri egon izan balitz,  
lasai asko bidaltzea zeukan *whatsapp* bat bere gurasoei,  
baina ez zegoen urduri. “Beraiek dei dezatela nire falta  
nabaritzen dutenean”, pentsatu zuen.

Geroxeago, mutiko frantses bat utzi zuten so-  
rosleen egoitzan, Denis, eta beste bat errumaniarra,  
zeinaren izena inork ez zekien, etengabe negar zo-  
tinka ari baitzen, begiak igurtziz eta mainak eginez.  
Bi haiek bai, haiek benetan galdu ziren.

“Eseri eta itxaron hemen txintxo-txintxo zuen  
bila etortzen diren arte”, esan zien agintzen zuen  
emakumeak.

\* \* \*

Ahotsen eta koloreen eztanda harekin, Kontxako  
hondartzak eskola bateko jolas-garaiko patio erraldoi  
bat zirudien, azoka handi bat edota zelai batean ja-  
rritako zirku bat. Hirurak batera. Wallyren liburuko  
orrialde bikoitza bezalakoa zen, non jende guztia  
zerbait egiten ari den eta ia ezinezkoa den Wally  
non dagoen jakitea. Non dago nor!

Batzuk mugikorretatik hizketan ari ziren, eguz-  
kitan etzanda zeudenak ez zapaltzeko ahaleginak

eginez; beste batzuk, itsasertzeko lehen ilaran tokitxo bat egin nahian, piratak heltzean hobeto ikusteko, puskatzen ziren uhinen zipriztinak belaunetatik gora jaso gabe.

Beren gauzetan murgildutako aitona-amonak eta umeak ikusten ziren, baltsen zain zeuden argazkilariak, jende despistatu asko itsasertzean sortutako giza barrera haren beste aldean, uretan, zer gertatzen ari zen ez zekiena.

Lehenengo baltsak hurbiltzen ari ziren hondartzara, oihu eta txalo artean, haur galduen mezua berriro ere bozgorailuetatik entzun zenean. Oraindik inor ez zen azaldu lehendik galdutako haurrei buruz galdezka, eta beste zazpi gehitu zitzaizkien: John eta Kate, ingelesak; Osvaldo, Edgar eta Jennifer, dominikarrak; Boris, txetxeniar mutil ilehori eguzkiak gorritua, eta hondarrak albardatutako pixoihal baten erruz balantzaka zebilen txikitxo bat. Hamabi ziren jadanik inork faltan eman ez zituen neska-mutilak.

Galdu zirelako edo, seguru asko haiek ziren ongien ikusten zutenak piraten baltsen etorrera, sorosleen begiralekura igota baitzeuden. Eta hain adi zeuden gertatzen zen guztia ikusi nahian, non ume errumaniarrak ere ez baitzituen jada begiak igurzten, eta zabal-zabalik zeuzkan platerak bezala.

\* \* \*

Piraten Lehorreratze jaia kuxkuxero multzo handi baten kolore, txalo eta irrien eztanda izan zen, eta lurrunduz joan zen giza laino bat balitz bezala Mirakontxa pasealekuan barrena Antiguarantz alde bate-tik, eta Alderdi Ederreko lorategietan barrena Parte Zaharrerantz bestetik.

Baina inor ez zen azaldu Kabina Zentraletako haur haiei buruz galdezka.

–Geratu hemen, laster etorriko dira-eta zuen gurasoak –agindu zien neska gazte beltzaran batek, soroslea hura ere, bere jaka gorria erantzi eta pertxa batean zintzilikatuz. Bulego txikia oharrez, higiene araez eta mareen taulez apainduta ageri zen. Gero atea itxi eta, motxila bizkarrean, bere txandako beste lagunekin elkartzera joan zen, jendar-tean nahastuta aurreraxeago baitzihoazen haiek.

“Eta orain zer egin behar dugu?”, zirudien gal-detzen ziotela elkarri handienek, Urkok, Malenek eta Ainhoak, batak besteari begira. Denis frantse-sak ere bai, seguru asko. Haiek ez zeukaten inolako arazorik bakoitza bere kasa ibiltzeko. Arazoa bes-teena zen, txikienena; batzuk oso txikiak ziren gai-nera. Eta denak kanpotarrak. Ziurrenik ez zuten hi-ria ezagutuko, eta ez zuten jakingo nondik hasi gurasoen bila. Eta gurasoak ere zalaparta batean ha-siko ziren haien bila, beraiekin ez zeudela kontu-ratutakoan. Jertsea parkeko eserleku batean gal-tzen duzunean bezala. Eta gero, hurbileneko komisariara joango ziren etsipen eta amorru aur-



pegiarekin. Helduek horrela jokatzeko dute estu eta larri daudenean. “Gizajoak”, ziotela zirudien, denek batera, *dodotiseko* haurtxoari eta izenik gabeko errumaniarrari begira. Besteek elkar ezagutzen zutela ematen zuen, bi ingelesek eta hiru dominikarrek. Agian, horregatik ez zeuden txikitxoak bezain urduri.

Beraz, ezin ziren handik joan txiki haiek bakarrik utzita.

\* \* \*

Hondartzako bazter batean dago orain kokatuta badiaren erdian ainguratuta egoten den gabarroia. Jendea igeri joaten da bertara, eta hango tranpolinetik edo txirristatik jauzi egiten du uretara. Orain ur bazterrean dago, piraten baltsek oztoporik izan ez dezaten lehorra etortzerakoan.

–Hara igotzen bagara, festatik gertuago egongo gara –iradoki zien Malenek handienei–, eta hobeto ikusiko dugu itsasontzien etorrera.

–Baina txiki hauek ezin ditugu hemen bakarrik utzi, eta ezin ditugu gurekin eraman –ikusarazi zion Ainhoak.

–Etorriko zaizkie gurasoak bila –esan zion lagunak.

Bazirudien Urko bakarrik ez zegoela ados esandakoarekin, baina ez zion eragozpenik jarri nesken

ideiari. Eta zerbait adierazi balie ere, jende artean bul-tzaka gabarroiraino iristerakoan, hango iskanbilare-kin, inork ez zukeen entzungo.

–Bueno, gabarroitik hobeto ikusi ahal izango ditugu gure gurasoak eta haiek gu ere bai, gure bila hasten direnean.

Haren eta nesken bila inor ez zen hasiko, han-diak baitziren jadanik nahi zuten lekura joateko. Baina txikiena zen arazoa. Nola utziko zituzten ba bakarrik, txikiak izateaz gain udatiarrak edo kanpo-tarrak baitziren ia denak.

–Denok elkarrekin, hobeto –jakinarazi zien mu-tiko frantsesak.

Eta besteek onartu egin zutela zirudien, lehorre-ratzen ari zirenen zarata leuntzen joan zen neurrian, hamabiak gabarroiaren gainean bilduta baitzeuden. Urkok eta Denisek, frantsesak, banaka-banaka, pla-taformaraino garraiatu zituzten haur galduak, soros-leak konturatu ere egin gabe eta inoren gurasorik bila azaldu gabe oraindik. Eta ez zen han bukatu kon-tua. Ia itsasertzean ainguratuta zeuden buietatik so-kak askatu zituzten, badiaren erdialdera joateko eta handik ikuskizuna hobeto ikusteko.

–Nabigatzen ari gara! –oihu egin zuen haur do-minikarretako batek.

–Bai ederki! –poztu zen beste bat.

–Erotu egin al zara, mutiko? –aurpegiratu zion Urkori neska handienetako batek, isilka, txikiak ez beldurtzeko.

–Agian bai –erantzun zion Urkok, begi keinu bat eginez John eta Kate ingelesei; haiek ere gabarroian pozik nabigatzen ari zirela zirudien, badiako galeoi-rik ederreneko marinolak balira bezala.

Bazirudien neskak bakarrik kezkatzen zirela ezusteko bidaia harekin. Jaia ikusten ari zirenetako inork ez zion arreta txikienik ere jartzen itsasoratzen ari zen itsasontzi berri hari. Ezta beren talaiatik inguruko festa giroa ikuskatzen zuten sorosleek ere. Haiek konturatzeko, itsasertzetik oso urruti egongo zen gabarroia seguru asko.

\* \* \*

Eguzkia ezkutatzearekin batera, jendea hondartzatik alde egiten hasi zen. Gabarroia ere bai, mareak eramanda urrunduz eta Santa Klara uharte aldera hurbilduz joan baitzen.

Oraindik inork izenik jarri gabeko bi txikienak lo geratu ziren, bi aingerutxo bezala. Bi neska handienek beren jertseekin estali zituzten samurki. Inor ez zen hitz egitera ausartzen, haiek ez esnatzeko. Inork ez zuen kezkarik edo beldurrik adierazten.

–Laster etorriko dira gure bila –xuxurlatu zion Urkok neska handienei, bere *iPhonea* kutun salbatzaile bat balitz bezala erakutsiz.

–Iluntzen badu –azaldu zuen Malenek–, ezingo gaituzte ikusi. Eta agian hemen ez duzu estaldurarik edukiko.

Gaitzespen keinu batekin, gauza horietan ez pentsatzeko eskatu zioten besteek.

Eguzkia itsasoko marra urdinean ezkutatuz joan zen neurrian, hiru mutiko dominikarrek eta ingeles bikoteak beren kezka azaldu zuten, bata bestearen babesean estutuz joan baitziren, eta jadanik ez zuten barrerik edo beren abenturari buruzko txutxu-mutxurik egiten.

–Jarri denok elkartuta –azaldu zien Urkok, bere telefono mugikorra erakutsi eta argazkia ateratzeko keinua eginez–. Esan “pa-ta-ta”.

Mutikoek irribarre behartu bat egin zuten, zirudien bezain beldurtuta ez zeudela adierazi nahiz.

Gero isiltasuna nagusitu zen plataforma flota-tzaile hartan. Bertatik hondartzan botilloia egiten ari ziren taldeak ikus zitezkeen. Noizean behin, etxafuego hegalaria baten distira ageri zen, eta gero haren zarata hotsa entzuten zen. Malenek eta Larak oihuka agurtu nahi izan zituzten.

–Tuntundu egin al zarete? –aurpegiratu zien mutil zaharrenak–. Zer nahi duzue, gugana etorri eta hemendik bidaltzea?

–Ez –defendatu zuen bere burua nesketako batek–. Berriro hondartzara itzuli, hori nahi dugu.

–Hori jadanik ezinezkoa da –jakinarazi zien Urkok–. Korronteak itsas barrurantz garamatza, uhartearen aldera, ez duzue ikusten, ala? Eta han geldituko gara aldi batean... –Eten bat egin zuen bere aginte ahotsarekin besteak ez beldurtzeko;

gero, gogoeta egin eta erantsi zuen—: Bihar arte bai behintzat.

\* \* \*

Erdi bromatan, erdi serio, aurkezpenak egin ondoren, eskifaiako beste kideei izenak jartzea erabaki zuten lau zaharrenek.

—Txikiena, *Prakagorri*, zer iruditzen zaizue? —txantxetan Ainhoak.

—Hobeto *Txitxirio Txiki*, kanpotarrek ere uler dezaten —esan zuen haren lagunak, hiru dominikarrei galdetu aurretik—: badakizue nor zen Txitxirio Txiki?

—Txitxirio Txiki ez, baina Erpurutxo bai, eza-gutzen dugu —erantzun zuen Osvaldok.

Baina berdin zion, jende askok oraindik ez baitzituen bereizten.

—Eta beste bi hauek Hansel eta Gretel —erantsi zuen Urkok, John eta Kate seinalatuz—. Baina gurekin dauden bitartean, eta Ulia mendira hurbiltzen ez badira, ez dituzte sorginek erreko.

Etxeko zaharragoei Uliako sorginari buruzko kontuak entzunda zeudenek irribarre egin zuten, hura sekula ikusi ez bazuten ere.

—Eta gu? —galdetu zuen Jenniferrek.

—Zuek hirurok baduzue izena, ezta? Baina nahi baduzue Hiru Mosketariak izan zaitezketen —esan zien Urkok txantxetan.

–Eta hau D’Artagnan –gehitu zuen Denisek, Boris seinalatuz, txetxeniari musugorria.

Mutiko frantsesak benetan nahi zuena Urkoren konfiantza irabaztea zen, hark esandako guztiari jarraituz.

Berriz ere zotinka ari zen errumaniarrari izena jartzea falta zitzaien.

–Hau, Peter Pan –proposatu zuen bi neska handienetako batek.

Inork ez zion eragozpenik jarri ideia hari. Ezta Denisek ere, izen hori beretzat nahiko zukeen arren, bere pertsonaia kuttunetako bat baitzen. Urkok eta neskek beren benetako izenak erabiltzen bazituzten, hark ere gauza bera egin behar zuen, Peter Pan izateko gogoarekin geldituko bazen ere, beste guztiak Garfio Kapitainarengandik eta haren pirata zarata-tsuengandik defenditzeko.

Eta orain zer? Badiaren erdian zeukaten jadanik ontzia. Beren izenak bazeuzkaten jadanik. Eskifaia osoa babesean jarrita zeukaten jadanik. Eta laster ilunduko zuen.

Arkupeak eta hondartza botilloia egiten ari ziren piratez beteko ziren, abesten, dantzan eta oihiak jaurtitzen ari ziren jende zaratatsuz, eta haiek txikerrena esnatuko zuten eta oraindik zotin gehiago ateraraziko zioten Peter Pan negartiari.

Hondartzatik ahalik eta gehien urrunduko behar zuten. Horretan denak bat zetozeela zirudien. Beraz, biren artean txikiak gabarraren erdian zaintzen

zituzten bitartean, beste bik, plataformaren erdian etzanda eta gorputz erdia kanpoan zutela, arraunean ziharduten beren txankletekin, pirata zaratatsu haie-takoren bat igeri etor ez zedin gabarroiraino.

–Piratak mozkortzen direnean oso arriskutsuak dira –azaldu zien Denisek. Ahots apalean esan zuen, Ainhoak, Malenek eta Urkok bakarrik entzun zezaten, beste guztiak, txikerrena, errumaniarra, Hansel eta Gretel, Hiru Mosketariak eta D’Artagnan ia lotan edota lo hartzeko zorian baitzeuden.

–Isilago hitz egingo dugu –murmurikatu zuen Urkok bere *iPhonea* bilatuz poltsikoan, busti ote ziztaion jakiteko.

Kapitaina izango baldin bazen, huraxe zuen birtarteko bakarra ez galtzeko. GPSa, Interneta eta posta zeukan. Itsas barruan estaldurarik baldin bazegoen, noski.

\* \* \*

Goiza heze eta lainotsu esnatu zen. Baina itsas bazterreko inguruak ikus zitezkeen, zuhaitz mota desberdinez hornituta: Lizarrak, akaziak, urkiak, pikondoak eta tamarindo bihurriak, zeintzuen artetik bidezidorrak sigi-sagan igotzen baitira garo eta sasiarten, baita harrizko eskailerak ere, beren maila goroldioztatuak agerian dituztela.

Biztanle berriek ez zekiten non zeuden, ezta nork eramán zituen ere zulo hartaraino, non hotzetik

babestuta baitzeuden. Itsaslabar bazterreraino inguratu arte ez zuten jakingo Santa Klara uhartereko toki ezkutu batean zeudela, hondartzatik eta kaitik ez oso urruti.

Urko jabetu zen aurrena. Berak ezagutzen zuen ondoen uhartea, aitarekin askotan egon baitzen han iraileko igandeetako Kontxako estropadetan. Olagarro bat ere harrapatu zuen behin uhartearen mendebaldean, Igeldorantz ematen duen aldean, Mojen Garbitokiaren inguruan. Gauetan, itsasbehera zegoenean, Ondarretako hondartzatik hara oinez joaten zen artzainaren istorioa ere bazekien, zeina bere maitearekin aurkitzen baitzen eta iturriaren oinean elkar besarkatzen baitzuten.

Beste guztiak ere jabetuz joan ziren, eta erabat konturatu ziren leize-zuloaren sarreran gizontxo beltzaran hura agertu zenean gosaria ekartzera aurpegi onberarekin. Arrain biziak zekartzan, karramarroak, ogi puskak eta ura. Ez zen asko, baina hura dena egosi eta papurtuta katilu batzuetan prestatzen zutenean, janari bikaina izango zen.

Denbora luzean gizontxoak ez zuen hitz egin. Umeek ere ez. Gizonak, ohituta zegoelako isiltasunean bizitzen; txikiak, ez zekitelako zer esan edo zer egin: gizon harekin beldurtu, harengandik ihes egin, edota oihuka hasi eta negar egin...

Ainhoak eta Malenek hautsi zuten lehenak isiltasuna:



–Nor zara zu? Zergatik gaude hemen? Zure gatibuak al gara?

Eta azken galdera hura izan zen gizonari barre al gara lasai bat eginarazi eta ezpainetan hitz jario etengabe bat piztu ziona, luzaroan itxita eduki ondoren.

–Bost axola dio horrek –esan zuen ahots marantatuz–. Nora ezean aurkitu eta nire etxean babestu zaituztedana naiz ni. Aspalditik bizi naiz hemen, ez naiz gogoratzen noiz etorri nintzen ere. –Eta gero jarraitu zuen–: Eta ez, ez zarete nire gatibuak. Nahi duzuenean joan zaitezket.

–Baina nor zara? Zer egiten duzu hemen? –tematu zen oraingoan Urko.

–Uhartearen zaindaria naiz eta bertan bizi den guztia zaintzen dut –erantzun zuen–. Hau gehiago gustatzen zaizue? Esango al didazue zuek orain zer egiten zenuten hor nora ezean?

Eta arrapaladan kontatu zioten haurrek dena.